**LAGen BERRIKUSPENAREN HASIERAKO ONESPENARI DAGOKIONEZ AURKEZTUTAKO ALEGAZIOARI EMANDAKO ERANTZUNA.**
CONTESTACIÓN A LA ALEGACIÓN PRESENTADA A LA APROBACIÓN INICIAL DE LA REVISIÓN DE LAS DOT.

**Alegazio zenbakia**: **30**
Alegación nº:

**Nork aurkeztu du**: Tolosako Udalak
Presentada por:

**Aurkezte-data**: 2018/04/26
Fecha de presentación:

Ezer baino lehen, eskerrik asko aurkeztutako alegazioarengatik, sentsibilitate guztiak jaso eta ahalik eta adostasun handiena lortzen duen EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen dokumentu bat eskuratzeko zure ahalegin eta interesari dagokienez.

Cabe iniciar agradeciendo la alegación presentada en lo que supone un esfuerzo y un interés de cara a disponer de un documento de Directrices de Ordenación Territorial de la CAPV que recoja todas las sensibilidades y aúne el máximo consenso.

**A. Egindako alegazioen eduki laburbildua eta horien balorazioa.**

Tolosako Udalak aurkeztutako idatzian, Euskararen arloko gidalerroak jasotzen dituen 33. artikuluko 2. Atalean, “arnasguneak babestea” gehitzea proposatzen da; zehazki honela jarrita:

- *“Arnasguneak babestea eta harremanetarako guneak ahalbidetzea, sare presentzialak indartzea eta esklusibotasuneko eta lurralde-konpartimentazioko guneak saihestea.”*

Nahiz eta txostenean eta baita helburuetan arnasguneei erreferentzia egin, beharrezko ikusten da gidalerroetan ere jasotzea.

Ondo dagoena zaindu egin behar dela dio, ez dadila atzerapausorik eman, eta urrats berriak ematerakoan prebentiboki aritu behar dela. Zehazki honako hau azaltzen da:

- Lurralde antolaketak eta hirigintza-planek hizkuntzaren egoeran eragina dutela.
- Baina, era berean, tresna eragingarriak izan daitzekela hizkuntza biziberritzeko.

**A. Contenido resumido de las alegaciones y valoración de las mismas.**

En el escrito presentado por el Ayuntamiento de Tolosa se propone incorporar el “*preservar los arnasguneak*” en el apartado 2 del artículo 33 que contiene las directrices en materia de euskera; en concreto como sigue (es traducción):

- Preservar los *arnasguneak* y propiciar espacios de relación, fortalecer las redes presenciales y evitar espacios de exclusividad y compartimentación territorial.

Considera que, aunque ya se hace referencia a los *arnasguneak* tanto en el informe como en los objetivos, es necesario recogerlo también en las directrices.

Entiende que lo que está bien hay que cuidar, sin dar pasos para atrás, y que al dar nuevos pasos hay que actuar preventivamente. Se expone en concreto que:

- La ordenación del territorio y los planes urbanísticos tienen incidencia en el estado de la lengua.
- Pero, al mismo tiempo, pueden ser instrumentos influyentes para su revitalización.

**Balorazioa**

LAGen berrikuspenak izaera transbertsaleko gaiak sartu ditu, zehazki, honako hauek: irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, klima-aldaketa, osasuna, euskara eta lurralde-erlazioa. Hau da, besteak beste, euskara ere badago.

"Lurralde Ereduaren Oinarriak eta Printzipio Gidariak" kapituluko zati den "LAGen berrikuspenaren printzipio gidariak" izeneko 2.2. azpiatalean jasotzen diren Lurralde-ereduaren printzipio gidarien artean, honako hau jasotzen da (9.zkia):

> *"Gai berriak sartzea lurraldearen antolamenduan, zeharkako izaeratzat kontuan hartzen direnak, hala nola irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, euskara, klima-aldaketa, osasuna eta lurralde-erlazioa."*

"Lurralde-eredua. Elementu definitzaileak" izeneko 3. atalean jasotzen diren Lurralde-ereduaren elementu definitzaileen artean, zeharkako gaiak daude, elementu definitzaile hori aurkezten duen "Zeharkako Gaiak" VII. atalean honako hau adierazita:

> *Lurralde- eta hirigintza-plangintzak gai berriak jaso behar ditu; gizarteak kontuan hartu behar dituen zeharkako kontuez ari gara. Lurraldearen antolamenduaren edo hirigintzaren alorra gainditzen duten gaiak dira, baina barneratu beharrekoak.*

Bestalde, "Zeharkako gaiak" delakoak garatzen dituen 10. atalak honako hau azaltzen du aipatutakoei dagokionez:

> *"Berez lurraldeari estu lotuta ez badaude ere, lurraldean nolabaiteko eragina duten gai batzuez ari gara. Irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, klima-aldaketa, osasuna, euskara, eta lurralde arteko erlazioa, kasu.*
>
> *Arlo horietako batzuk hainbat prozeduratan aztertzen dira, adibidez ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioan, baina batasun gisa tratatu behar dira, hiri-eredu trinko, konplexu eta kohesionatu batean*

**Valoración**

La revisión de las DOT ha introducido cuestiones de carácter transversal, en concreto las siguientes: Accesibilidad Universal, Perspectiva de género, Cambio climático, Salud, Euskera e Interrelación territorial. Es decir entre ellos el euskera.

Entre los principios rectores del Modelo Territorial que se recogen en el subcapítulo 2.2 "Principios rectores de la revisión de las DOT" del capítulo 2 "Bases y Principios Rectores del Modelo Territorial" se incluye el siguiente (nº9):

> *"Incluir cuestiones novedosas en la ordenación del territorio que se consideran de carácter transversal como la accesibilidad universal, la perspectiva de género, el euskera, el cambio climático, la salud y la interrelación territorial*".

Entre los elementos definitorios del Modelo Territorial que se recogen en el capítulo 3 "Modelo Territorial. Elementos Definitorios" se incluyen las cuestiones transversales, exponiendo lo siguiente en la introducción al apartado VII. "Cuestiones Transversales" dedicado a presentar este elemento definitorio:

> *"El planeamiento territorial y urbanístico han de incorporar en su contenido nuevas cuestiones transversales a abordar por la sociedad; cuestiones que sobrepasan el campo de la ordenación del territorio o del urbanismo, pero que se deben de interiorizar".*

A su vez, tal y como recoge el capítulo 10 destinado a desarrollar estas "Cuestiones Transversales" expone respecto de estas lo siguiente:

> *"Se trata de cuestiones que, sin tener una naturaleza de carácter territorial propiamente dicha, también tienen una incidencia en el territorio. Es el caso de la accesibilidad universal, la perspectiva de género, el cambio climático, la salud, el euskera y la interrelación territorial.*
>
> *Implican materias, algunas de las cuales son tratadas en distintos procedimientos, como en la evaluación de impacto ambiental, pero que requieren un*

*elkartzen direlako; eta hori, Aplikatzeko Arauen 28. artikuluan proposatzen diren gidalerroetan islatzen da."*

Zeharkako gaien testuinguru honetan, euskara landu da eta, testuinguru honetan ere, euskararen inguruko gidalerroak LAGak Aplikatzeko Arauen "Gomendio mailako gidalerroak" izeneko III. Kapituluan jasota daude; hau da, jarduera-ildoen gomendio gisa.

Alegazio honek aipatzen duen gidalerroari dagokionez (33.2. artikulua) egokitzapen bat egin da, LAGen berrikuspenaren aurrerapen dokumentuak jasotako prosamenetik Hasierako Onespenaren dokumentura. Hona hemen egindako egokitzapena:

Aurrerapeneko dokumentuaren proposamena. "*Arnasguneak babestea, harremanetarako guneak ahalbidetzea, sare presentzialak indartzea eta esklusibotasuneko eta lurralde-konpartimentazioko guneak saihestea*."

Hasierako onespenaren dokumentuaren idazketa. *"Harremanetarako guneak ahalbidetzea, sare presentzialak indartzea eta esklusibotasuneko eta lurralde-konpartimentazioko guneak saihestea."*

Alegazioak proposatzen duen idazketa (aipatutako gidalerroarentzat) aurrerapenak proposatzen zuenaren antzekoa da. Baina, adierazi beharra dago Hasierako Onespenaren dokumentuaren idazketari modu globalizatu batean ekin zaiola, guztia honako helburuarekin: bai proposamen bai eta arautegiaren idazketa orohartzaile bat lortzea. Hori dela eta atera egin da bere oinarria lurralde antolamenduan ez duen "arnasguneak" hitza.

**B. Beste hainbat txosten eta ekarpenei erantzunez dokumentuan jasotako aldaketei buruzko kontsiderazioak.**

---

Jasotako alegazioak ikusita, bai eta hauen erantzunei lotutako azterketa teknikoa, 28. artikulua, "Gidalerroak zeharkako gaietan eta hiri-eredua" izenekoa, Espazioaren antolamendurako eta erabilerarako

*tratamiento unitario en cuanto que mayormente convergen en un mismo modelo de ciudad denso, complejo y cohesionado; y que se traslada a las directrices propuestas en el artículo 28 de las Normas de Aplicación."*

En este contexto de cuestión transversal ha sido tratado el euskera y en este contexto también las directrices del euskera están contenidas en el Capítulo III "Directrices Recomendatorias" de las Normas de Aplicación de las DOT; es decir como recomendaciones de líneas de actuación.

La directriz a la que se refiere esta alegación (artículo 33.2) ha sido objeto de la siguiente adaptación, entre la propuesta contenida en el documento de Avance de la revisión de las DOT y la redacción realizada en el Documento de Aprobación Inicial:

Propuesta del Documento de Avance. *"Preservar los arnasguneak, así como propiciar espacios de relación y fortalecimiento de redes presenciales y evitar espacios de exclusividad y compartimentación territorial."*

Redacción del Documento de Aprobación Inicial. *"Propiciar espacios de relación y fortalecimiento de redes presenciales y evitar espacios de exclusividad y compartimentación territorial."*

La redacción (para esta directriz) que se propone en la alegación se asemeja a la que proponía el Avance, pero ha de señalarse que la elaboración del documento de Aprobación Inicial ha sido acometida de un modo globalizado con el objeto de obtener una propuesta y una redacción de normativa globalizadora por lo que ha sido extraído el vocablo "*arnasguneak*" que no tiene su origen en la ordenación territorial.

**B. Consideraciones en relación a los cambios introducidos en el documento en respuesta a otros informes y aportaciones.**

---

A la vista de las alegaciones recibidas y del estudio técnico implícito a su contestación, el artículo 28: "Directrices en materia de cuestiones transversales y modelo de ciudad" pasará a ser una Directriz de Ordenación y

gidalerroetara eramango da, 19. artikulua esleituta. Horren idazketa hasierako onespenaren dokumentuaren antzekoa da, eta honako hau da:

***19. artikulua. Zeharkako gaien eta hiri-ereduaren arloko gidalerroak.***

*1. Kontuan hartzea lurraldean eragina duten zeharkako gaiak: irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, klima-aldaketa, osasuna eta lurralde-interrelazioa.*

*2. Zeharkako gaiak kontuan hartuta hiri-eredu trinkoa, erabileren nahasketari dagokionez konplexua sustatzea, gizarte arloan kohesionatutako eredua.*

Uso del Espacio con el número de artículo 19. Su redacción, similar al del documento de aprobación inicial, es la siguiente:

***Artículo 19. Directrices en materia de cuestiones transversales y modelo de ciudad.***

*1. Tener en cuenta las cuestiones transversales que inciden en el territorio: accesibilidad universal, perspectiva de género, cambio climático, salud, euskera e interrelación territorial.*

*2. Promover, en atención a las cuestiones transversales, un modelo de ciudad denso, complejo en cuanto a la mezcla de usos y cohesionado socialmente.*

## C. Ondorioa.

**1.-** Ondorio gisa, nabarmendu beharra dago egindako ekarpen eta hausnarketen bidez helarazitako interes maila. Ekarpen horiek dokumentuaren edukia aberasten lagunduko dute; beraz, eskertzekoa da dokumentua egitean izandako partaidetza. Bestalde, ez zaio zehaztapenik ezartzen LAGen berrikuspenaren hasierako onespenaren dokumentuari.

**2.-** Jasotako alegazioak ikusita, bai eta hauen erantzunei lotutako azterketa teknikoa, “Gidalerroak zeharkako gaietan eta hiri-eredua“ izeneko gidalerroak Espazioaren antolamendurako eta erabilerarako gidalerroetara eramango dira, 19. artikulua esleituta eta edukia hasierako onespenaren dokumentuaren antzekoa duela.

## C. Conclusión.

**1.-** Como conclusión, debe destacarse el grado de interés mostrado a través de las aportaciones y reflexiones realizadas, las cuales contribuirán a enriquecer el contenido del documento. Se agradece, por lo tanto, la participación en la elaboración del mismo sin que proceda incorporar ninguna precisión al documento de aprobación inicial de la Revisión de las DOT.

**2.-** A la vista de las alegaciones recibidas y del estudio técnico implícito a su contestación, las “Directrices en materia de cuestiones transversales y modelo de ciudad” pasarán a ser una Directriz de Ordenación y Uso del Espacio con el número de artículo 19 y similar contenido al del documento de aprobación inicial.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko azaroan
En Vitoria-Gasteiz, a noviembre de 2018

*Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri-berroneratze Zuzendaritza*
*Dirección de Planificación Territorial, Urbanismo y Regeneración Urbana*